

Laika, lehen txakur astronauta

Laika izeneko txakurra izan zen Lurrari buelta eman zion lehen izaki biziduna.

Laika 1957ko azaroaren 2an jaurti zuten Sputnik 2 espazio-ontziaren barruan. Sobiet Batasunaren proiektu hark izugarritzko oihartzuna izan zuen, ordura arte bizidunik gabeko sateliteak baino ez baitziren espaziora bidali.

Sputnik 1 izan zen espaziora joan zen lehen satelitea eta 18 kiloko pisua zuen. Sputnik 2k, berriz, 113 kiloko pisua zuen, Laika barne. Orduan, ia pentsaezina zen hainbesteko pisua zuen espazio-ontzia aireratu eta Lurraren orbitan bueltaka jartzea, baina errusiarrek lortu egin zuten.

Laika txakurra Moskuko kale gorritik hartu eta espazio-ontziaren barruan ohitzeko trebatu zuten. Espazio-ontziak oxigenoa sortzen zuen tresna bat zuen eta baita gelatina moduko janaria ere.

Laikak bizirik astebete iraungo zuela uste zen orduan, baina orain kaleratu diren datuek alderantzizkoa diote. Dirudenez, Laika gaixoa estresak eta beroak jota hil zen, espaziora heldu eta ordu gutxira. Hala ere, espazio-ontziak 2.570 bira eman zizkion Lurrari, eta 1958ko apirilaren 4an, Lurreko atmosferan erre zen.

Askorentzat Laika ez da erraz ahaztuko den txakurra, hari esker bizidunok espaziora joan gaitezkeela frogatu zelako. Bestela, batek daki noiz helduko zen lehen astronauta espaziora!

Elhuyar aldizkaria



1 Erantzun galderei.

- Noiz bidali zuten espaziora lehen izaki biziduna? Zer izaki mota zen? _____

- Non bizi zen Laika txakurra? _____
- Zerez elikatu zen Laika espazio-ontziaren barruan? _____
- Zenbat denbora uste zuten iraungo zuela Laikak bizirik? Zenbat iraun zuen? _____

- Zer onura ekarri zigun Laikaren esperientziak? _____

2 Adierazi esaldi hauek E (egia) ala G (gezurra) diren.

- Laika izan zen Ilargiari bira eman zion lehen izakia.
- Sputnik 1 satelitea Sputnik 2 baino arinagoa zen.
- Espazio-ontzi barruan oxigenoa berez sortzen zen.
- Laika gaixoa Lurreko atmosferan erre zen.
- Sputnik 2 urtebetez ibili zen Lurrari biraka.
- Laikari esker frogatu zen izakiek espaziora bidaiatu ahal dutela.



3 Bilatu testuan definizio bakoitzari dagokion hitza.

- Soinua errepikatuta entzutearen efektua: _____
- Sinesgaitza, imajinatu ezinekoa: _____
- Itzulinguruka, jiraka: _____
- Argitaratu, plazaratu: _____

4 Aukeratu. Zer esan nahi du esapide honek?

Laika gaixoa **estresak eta beroak jota** hil zen.

- Estresaren eta beroaren eraginez, Laika zorabiatu egin zen.
- Laika txakurra estresaren eta beroaren erruz hil zen.
- Estresaren eta beroaren eraginez, Laika hilzorian geratu zen.



5 Lotu hiru zutabeetako hitz sinonimoak.

- | | | |
|------------------|--------------------|---------------|
| izugarrizko ■ | ■ egiaztatu ■ | ■ ailegatu |
| tresna ■ | ■ heldu ■ | ■ antza denez |
| alderantzizkoa ■ | ■ agidanean ■ | ■ itzelezko |
| frogatu ■ | ■ ikaragarritzko ■ | ■ erreminta |
| dirudienez ■ | ■ lanabesa ■ | ■ aurkakoa |
| iritsi ■ | ■ jaurti ■ | ■ bota |
| aireratu ■ | ■ kontrakoa ■ | ■ ziurtatu |

Izena, aditza eta esaldia

1 Irakurri testua eta inguratu izen guztiak: arruntak eta bereziak.



Matxi katua

Matxi kaleko katua da, ez du jaberik eta kalean egiten du bere bizimodua. Goiza Arrandegi kalean ematen du, hantxe baitaude arrandegiak: Maritxu, Bermeotarra, Fresko-fresko,... Arratsaldean, aldiz, Dendarinea kalearen eta Txurruka plazaren artean dagoen kalekkan ematen ditu orduak oinezkoei eta bizikletei begira.

2 Sailkatu eta idatzi goiko testuan inguratu dituzun izenak.

Izen bereziak: ► _____

Izen arruntak: ► _____

3 Osatu esaldi hauek, zein bere izenarekin.

Bidasoa

erle

izurde

Tutera

orein

- Ezti apur bat egiteko _____ askok egin behar izaten du bere lana.
- Valderejoko parkean _____ talde bat ikusi genuen.
- Herenegun _____ bat agertu zen Getariako portuan.
- Hondarribian itsasoratzen da _____ ibaia.
- Erriberako herririk garrantzitsuena _____ da.



4 Irakurri bi definizio hauek eta erantzun galderei.

balea. Itsas ugaztun zetazeo handia.

Moby Dick. H. Melville-ren eleberria (1851). Balea zuriaren eta Ahab kapitainaren arteko borroka du kontagai.

- Zure ustez, zein agertuko da entziklopedia batean, eta zein hiztegi batean? Arrazoitu.


5 Osatu esaldiak aditz hauekin.

- ibili ziren
- nago
- zara
- dakizu
- joaten dira

- Ba al _____ non dagoen autobus geltokia?
- Udazkenean usoak Afrika aldera _____ .
- Ziur _____ , musker bat ikusi dut leihoan gora igotzen.
- Mikeldi eta Lorea patinetean _____ atzo.
- Zu _____ narrastiak gogoko dituen bakarra.

6 Aukeratu aditz zuzena kasu bakoitzean.

- Mireiari dortoka bat oparituko _____ urtebetetzean.
 du zion diote
- Ezetz asmatu zer animalia mota _____ koiotea.
 den diren dira
- Achab kapitainak balea zuri bat harrapatu nahi _____
Moby Dick eleberrian.
 dute du dio
- Zure txakurra katuaren atzetik _____ orain.
 zebilen dabilta dabil



7 Idatzi aditz trinko egokiak esaldietako hutsuneetan.

- Zuriñe, bazatoz ala ez _____ gurekin pelikula ikustera? (etorri)
- Oilarra _____ oilategiko nagusia. (izan)
- Gure irakasleak bi seme eta alaba bat _____. (ukan)
- Nik ez _____ galdera horren erantzun zuzena. (jakin)
- Zure adiskideek krispetak eta filmak _____ Mikelen etxera. (eraman)
- Ane zugana _____ ariketa hauek egiteko laguntza eske. (etorri)
- Orain irakasle guztiak ikasturte amaierako batzarrera _____. (joan)
- Erabat suminduta _____ gurekin, iaz esan genien gezurragatik. (egon)
- Zer _____ poltsa horretan, lkerne? (ekarri)
- Guk ez _____ ezer horri buruz, benetan! (jakin)

8 Berridatzi esaldiak, hitzak era egokian ordenatuz.

- haserre / Lorea / daude / eta / zurekin. / Aitziber

- ez / Zuk / bat / ikusi. / inoiz / duzu / azeri

- zer / marrazki / dituzten / Badakizu / ordutan / bizidunak? / emango

- egiten / latxa / Idiazabal / ardiaren / dute. / esnearekin / gazta

9 Egin galderak, adibidean bezala.

- *Libe etorri da lehenengo.* ▶ *Nor etorri da lehenengo?*
- Liburu bat hartu dut maileguan liburutegian. ▶ _____
- Bihar Mutrikura joango gara itsasontziz. ▶ _____
- Katuari jaten ematea ahaztu zait. ▶ _____
- Txiritaren bertso bat ikasi dugu gaur. ▶ _____



10 Lotu, esaldiak osatzeko.

- | | |
|----------------------|---|
| Zauritutako txoria ■ | ■ erosiko ditu txokolatea eta gailetak? |
| Zure aitona ■ | ■ joango gara urtegira piraguan ikastera. |
| Nork ■ | ■ hegaztiak sendatzeko zentrora eraman dute. |
| Hamabost ikasle ■ | ■ ogia ematen die kaleko usoei. |
| Peru ■ | ■ arduratuko da datorren astean ikasgelako akuarioaz. |



11 Berridatzi esaldiak ezezko eran.

- Etzi zinemara joango zarete. ▶ _____
- Aurten enarak betiko sasoian etorri dira. ▶ _____
- Niri Gabonetan kometa bat oparituko didate. ▶ _____
- Gurean Halloween ospatzen da. ▶ _____

1 Berridatzi esaldi hauek, letra larriak egoki idatzita.

- bernardo atxagak idatzi zuen xola eta basurdeak liburua.

- aimar olaizolak eta xalak jokatu dute larunbatean ogeta pilotalekuan.

- eusko jaurlaritzaren egoitza nagusia gasteizen dago.

- everest igotzeko saioa egingo du edurne pasaban mendizaleak.


2 Idatzi esaldi osoak, galdera hauei erantzunez. Erreparatu letra larrien erabilerari.

- Zein kontinentetan dago Sahara basamortua?

- Zein da Bilboko museo ospetsuena?

- Zein da Pariseko dorrerik ezagunena?

- Zer satelite ari da Lurraren inguruan biraka?




3 Berridatzi izen hauek, letra larriak zuzen jarrita.

- maialen lujanbio bertsolaria ▶ _____
- gorbeia mendia ▶ _____
- mari jainkosa ▶ _____
- milou txakurra ▶ _____
- arriaga antzokia ▶ _____
- donostiako aste nagusia ▶ _____
- euskara eta literatura ▶ _____

1 Irakurri liburuaren fitxa eta osatu hutsuneak beheko kutxetako hitzekin.

LIBURU-FITXA



- Garmendia errege.
- Kirmen Uribe eta Mikel Valverde.
- Elkar.
- 2004.
- : XIX. mendearen bukaeran, Garmendia esaten zioten ondarrutar bat artzain joan zen Ipar Ameriketara. Garmendiak eta bere lagun min Amalio mexikarrak zirku batean lan egingo dute. Garmendia indartsu gisa lan egiteko kontratatu dute zirkuari eta haren ospea lau haizetara zabalduko da. Garmendia ospaeren lainoak itsutuko du, ordea, eta azkenean Amalioaren eta beste adiskideen laguntza beharko du bizitzan benetan merezi duten gauzez ohartarazteko.

EGILEAK

LIBURUAREN LABURPENA

IZENBURUA

ARGITARATZE-URTEA

ARGITALETXEA

2 Erreparatu liburu honen azalari eta idatzi datu hauek.

- IZENBURUA: _____
- EGILEA: _____
- IRUDIGILEA: _____
- ARGITALETXEA: _____
- Ba al dago beste daturik azalean? Zein? Idatzi hemen behean.

- Zer datu ageri da goiko fitxa-ereduan, azal honetan ageri ez dena?



3 Irakurri bi testu hauek eta markatu zure ustez Jon Arretxeren liburuaren laburpena dena.

Inari du izena, Laponiako lakurik sakonenak bezalaxe. Leku lasai eta baketsuan bizi da Inari senideekin, mendeetan zehar arbasoek egin ohi zuten bezala, elur-oreinekin eta naturarekin bat eginik. Alabaina ez daude arriskuetatik salbu. Zibilizazio modernoa haiengana hurbiltzen eta bere aztarnak uzten hasi da...

Rama hamahiru urteko mutikoa da eta Asiako Sri Lanka uhartean bizi da. Haren sendia oso txiroa da eta eskolan barre egiten diote. Aukera izango du egoera txar horretatik irteteko Txinako Harresira egindako bidaiari esker, baina aurretik mila oztopo gainditu beharko ditu.

4 Osatu *Harresi Handirantz* liburuaren fitxa, aurretik ikusitako datuekin. Laburpena zeure hitzak erabiliz molda dezakezu.



LIBURU-FITXA

■ _____ : _____

■ _____ : _____

■ _____ : _____

■ _____ : _____

■ _____ : _____
